

ZARAUTZ / 'Freskagarriak' izango dira liburutegian

Irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa gidak dira; beste zenbait herrirekin elkarlanean argitaratu dituzte

O. PRAT

Zarauzko Sanz Enea Liburutegiak irakurzaletasuna sustatzeko irakurketa gidak argitaratu ditu Andoain, Astigarraga, Hernani, Urnieta eta Usurbilgo liburutegiekin elkarlanean. Freskagarriak 2009 liburutegi horien artean aukeratutako liburu, disko eta filmen bilduma da. Izenburu guztiak, gainera, aipatutako liburutegi horietan har daitezke maileguan.

Udan irakurtzeko

Ekimen honen helburua udarekin batera, aisialdirako denbora gehiago dutenen artean irakurketa bultzatzea da; gida hauek irakurketari ekin nahi diotenei nahiz ohiko irakurleei, argitaratu den guztiaren berri izateko aukera eskainitzen diete.

Argitalpen guztiak adinaren arabera sailkatu dituzte. Guztira 78 liburu, 8 disko, 10 film eta CD-ROM bat iradoki dituzte.

Sanz Enea Liburutegiak, gainera, hilero ateratzen du argitalpen berrien liburuxka bat; uda honetan bidaiak, artea eta artisautzan zentratu dira.

Udako ordutegia

Bestalde, Sanz Enea Liburutegiak ordutegi berezia izango du udan. Irailaren 22ra arte helduen liburutegia 09:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 20:00era egongo da zabalik. Haurren liburutegia, berriz, 10:00etatik 14:00etara.